

Ebazpena: 93/2023

Espedientea: 31/2021

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urriaren 18a.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordea honako hauek osatzen dute: Violeta Ruiz Almendral presidenteak eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese bokalek. Bada, honako hau erabaki dute:

ERABAKIA

Zerga Administrazioako Estatu Agentziak (aurrerantzean, ZAEA) Arabako Foru Aldundiaren (aurrerantzean, AFA) aurka aurkeztutako gatazkari buruzkoa, zeinaren helburua baita zehaztea zeinek duen KERALTY HEALTH SLk (aurrerantzean, KERALTY) 2017ko ekitaldian langile jakin batzuei ordaindutako lan-etekinengatiko atxikipenak ordainarazteko eskumena. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, 31/2021 espediente-zenbakiarekin.

AURREKARIAK

- 1.-** KERALTY enpresak zerga-egoitza Araban du, eta aholkularitza sanitarioa ematea du jarduera nagusi.
- 2.-** KERALTYk 2017ko ekitaldian egindako atxikipen guztiak AFAn sartu zituen.
- 3.-** Dagozkion egiaztatze- eta ikertze-jarduketak egin ondoren, ZAEAk egiaztatu zuen KERALTYko langile batzuek lurralde erkidean zeuden bizilekuetatik egin

zutela lana, telelanaren modalitatean, 2017ko ekitaldian. Era berean, ZAEAk egiaztatu zuen ezen, langile horiei ekitaldi horretan ordaindutako lan-etekinen gainean egindako atxikpenak AFAn sartu zituztela.

4.- ZAEAk atxikpen horiek itzultzeko eskatu zion AFari, 2020ko abenduaren 2an, eta AFak baztertu egin zuen, 2021eko otsailaren 9an.

5.- ZAEAk inhibizio-errekerimendua egin zion AFari, 2021eko apirilaren 7an, eta baztertu egin zuen, 2021eko apirilaren 29an.

6.- 2021eko maiatzaren 27an, ZAEAk gatazka planteatu zuen Arbitraje Batzorde honetan, eta Ekonomia Itunaren eta abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuaren bidez onartutako Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen Erregelamenduan (aurrerantzean, EIABA) araututako prozedura arruntaren bidez izapidetu da. Hori dela eta, izapidea bete da AFak alegazioak egin eta dagozkion froga eta agiriak hilabeteko epean aurkeztu eta proposa ditzan. Horrez gain, prozedurako interesdun guztiei espedientearen berri eman zaie, eta ZAEAk atzera egindakotzat jotzeko eskatu du izapide horretan.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena

Arbitraje Batzordeak du gatazka hau ebazteko eskumena, Ekonomia Itunaren 66. artikuluan xedatutakoaren arabera, Arbitraje Batzordearen eginkizunak ezartzen baititu:

«a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean

sortzen diren gatazkak ebaztea, bai tributu itunduen loturen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zergaren edota balio erantsiaren gaineko zergaren baterako tributazioaren kasuetan.

b) Banakako tributu-harremanetako arazo zehatzetan Ekonomia Ituna interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkak erabakitzea».

(...))»

2-. Atzera egitea

ZAEAk, azken alegazioen izapidean, eskaera bat aurkeztu zuen 31/2021 zenbakiarekin izapidetzen ari den gatazkari dagokion prozeduran atzera egindakotzat har dezaten, eta onartu zuen AFari dagokiola KERALTyk hartzaile jakin batzuei 2017ko ekitaldian egindako PFEZaren ondoriozko lan-atxikipenak ordainarazteko eskumena, kontuan hartuta Ekonomia Itunaren 7.Bat.a) artikuluan xedatutakoa, *ratione temporis* idazketa aplikagarrian. Horren ondorioz, bi administrazioen arteko gatazka bertan behera geratu da, eta horrek Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen aurrean bideratutako prozeduraren xedea gerora galtzea eta, horrenbestez, artxibatzea ekarri du.

Atzera egitea prozedura amaitzeko modu gisa jasotzen da Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 84. artikuluan, zeina aplikagarria baita EIABaren 8. artikulua eginiko igorpena betez.

Ildo horretan, Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 94. artikuluan xedatutakoaren arabera, Arbitraje Batzorde honek onartu egin behar du ZAEAk eskatutako atzera egitea, ez baitago prozeduran hirugarren pertsona

interesdunik, eta gatazkan sortutako auzia ez baita interes orokorrekoa, eta ez baita komeni hura bideratzea definitu eta argitu dadin. Eta, ondorioz, ebazpen hau ematen da, APAPELen 21.1 artikuluan adierazitakoa aintzat hartuta.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak

ERABAKITZEN DU

1.- Gatazka artxibatzea, ZAEAk atzera egitearen ondorioz prozeduraren xedea gerora galdu delako.

2.- Erabaki hau jakinaraztea Zerga Administrazioiko Estatu Agentziari, Arabako Foru Aldundiari eta KERALTY HEALTH SLri jakinaraztea.